



ATARIKA2013 ATARI PUBLIKOEN DIREKTORIOA

1. SISTEMAK BETE BEHARREKOAK

Hainbat formatu eskaintzen dira:

Microsoft-ACCESS 2003/2010 (.mdb/.accdb)

OpenDocument kalkulu-orria (.ods)

Lehen kasuan (Microsoft-ACCESS) aipatutako softwareko lizentzia bateko behar duzu. OpenDocument kalkulu-orriak irakurri ahal izateko, OpenOffice paketeak doako eran deskargatu behar duzu; 2007 Excel eta ondoko bertsioekin ireki ditzakezu ere.

2. DESKRIBAPENA

2.1 ATARIKA2013 Euskadiren Autonomia-Erkidegoko administrazioetako erakunde eta sektore publikoko atari publikoak artxibatu, sailkatu eta aldizka eguneratzen dituen biltegia da.

2.2 DIREKTORIOAREN EREMUA ETA ESTALDURA. Ikerketa eta bilketa egiteko esparru gisa Eustateko Herri-administrazioen 2010eko behin-behineko gidaliburua erabili da. Horrek, **1.164 erakunde** hartzen ditu. Ez dira sartu Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Estatuko Administrazio Orokorreko herri erakundeak. 2013ko edizioan, 2013/2014 ikasturtean zeuden 870 unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetatik, webgunea duten (berezkoa, artekatuta edo beste atari batean txertatuta)¹ 141 ikastetxeak sartu dira..

2.3 INFORMAZIOAREN GAURKOTZEA. Informazioa biltzeko eta esteka-erreferentziako aldia unitate bakoitzean adierazten da. Urtero gaurkotze partzialak egingo ditugu eta osoa bost urtean behin.

2.4 SARTUTAKO UNITATEAK. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek erabilitako **922 atarien** informazioa biltzen da. Atari horietan 11.220 zerbitzu, prozedura eta izapideen informazioa ZERPA2013an bildu dira.

¹ Ikusi '[Unibertsitatez kanpoko ikastetxeen helbidetegi orokorra](#)' 2013-2014ko matrikulako datuekin eguneratua. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.5 URL-EN IRAUNALDIA. Informazio-bilketa egin den datetan, atariak zituzten URLak sartu dira eta, beraz, ez da ziurtatzen kontsulta egingo den unean indarrean jarraituko dutenik. Egiaztatu da entitateen eta atarien izenek iraunkortasun-maila handiagoa dutela –gehienetan zentsuan sartutako erakundeek eskaintzen dituzten bezala sartu zirenak eta, beraz, funtsezko ‘bilaketa-elementu’ bihurtzen dira.

2.6 DATU-BASEAREN EGITURA. ATARIKA2013 datu-base formatuan egituratuta dago (ACCESS), eta ZERPA2013, zerbitzu publiko aurreratuen direktorioa, bertakotzen du modu erlazionalean.

Atari, zerbitzu eta prozeduren formularioak programatu dira. Horiei esker, identifikatu eta sailkatzeko aldagaien arabeko berariazko aukeraketak modu errazean egiteko aukera dago; kontsulta hauek independenteak dira beraien artean.

Bi datu-base eskura daitezke: bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz.

2.7 LAGUNTZA TEKNIKOA. Eskainitakoez gain bestelako formaturik edo argibiderik behar izanez gero edo eduki-ekarpenik edo ekarpen metodologikorik egin nahi izanez gero, euskarri teknikoko zerbitzuarekin jar zaitezke harremanetan, posta elektronikoko hau erabiliz:

manu-rodriiguez@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA
Herri Administrazio eta Justizia Saila
Zerbitzu Zuzendaritza
Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 64 26 – Fax 945 01 90 29

3. ATARI PUBLIKOKO BILKETAREN GAINKO OHARRAK

3.1 2013an Atari Publikoen Direktorioa eguneratu da 2013ko Sofistikazio Elektronikoaren Indizearen (laginaren izaerako operazioa) lantzearen esparruan egindako zerbitzu eta prozeduretako bilketaren aldian (begira 6. atala).

3.2 Atari batzuetan ez dira zerbitzuak ezta prozedurak ere zentsatu.

3.3 Hainbat atari berri gehitu dira. Haientzat ez da zerbitzurik ez prozedurarik jaso, aipatutako operazioaren laginean ez egoteagatik:

- 141 webgune: unibertsitez kanpoko ikastetxe publikoen atariak. WEB hauek, lehen aldiz, sartu dira gidaliburuan, aurretiaz existitzen ziren arren. Epe honetan eman diren beste alta fisikoetatik bereizi behar dira.
- 34 webgune berri, antzemandako zenbait egoeraren ondorioz eragindakoak: Herritarren Atarian integratu diren udalak, bat-egitetatik sortutako erakundeak eta aurretik antzeman ez diren beste batzuk.

4. ATARIKA2013 DIREKTORIOAREN EDUKIA

4.1 Gaurkotzea, identifikatu eta sailkatzeko aldagaiak

Datu-baseek atal bereiztuak dituzten bi taulak dituzte: Erakunde publikoek erabilitako atari publikoen direktorioa eta zerbitzuen eta prozeduren direktorioa, bakoitzak bere identifikazioekin eta sailkatzeko aldagaiekin baina eremu gakoekin horien arteko lotura eduki ahal izateko.

4.1.1 Identifikazio-aldagaiak

Erakundearen eta Webaren kodeez gain, erakunde publiko horren izena, atariaren URLa eta bere izena ematen dira. Halaber, erakundearen posta- eta telematika-hurbilketa eransten da.

4.1.2 Sailkapen-aldagaiak

Alde batetik, erakundearekin lotutako aldagaiak sartzen dira: mota, zein erakundetakoa den eta mendekotasun-lurraldea. Bestetik, atarikoak propioak direnak: atari-mota, erakundea-Web harreman-mota, erakundearen araberako erabilgarri dauden Web kopurua, erakundearen eta Webaren araberako zerbitzu eta prozedura kopurua eta eskainitako zerbitzuen motak.

4.1.3 Gaurkotze-aldagaiak

ATARIKA2013an eskainitako unitateen trazabilitate eta gaurkotzea jasotzen dituzten eremuak hiru dira: erreferentzia urtea, mugimendu-mota (edo jarraitzen badu, besterik ez) eta, aldaketaren bat agertuz gero, horren sortzailea den gertaera.

4.2 Atari publikoen direktorioa Zerbitzu eta prozeduren direktorioarekin fitxategi bat egitea

CAT_NUMENT / LIS_NUMENT eta CAT_NUMWEB / LIS_NUMWEB identifikazio-aldagaiekin lot daitezke bi fitxategiak. ACCESS datu-baseetan lotuta agertzen dira jada.

5. GLOSARIO DE CARACTERÍSTICAS. DESCRIPCIÓN DE FICHEROS

5.1 ATARIKA2013: fitxategiaren deskripzio eta etiketak

5.1.1 Identifikazio-aldagaiak

1. CAT_NUMENT	Erakunde publikoaren zenbakia (gakoa)
2. CAT_DIR_CIF	Erakunde publikoaren IFK
3. CAT_DIR_NOMBRE	Erakunde publikoaren izena
7. CAT_NUMWEB	Webaren hurrenkera-zenbakia (gakoa)
9. CAT_URL_WEB	Webaren URL
10. CAT_DENOWEB	Webaren izena
11. CAT_DIR_DIRECCION	Erakunde publikoaren egoitzaren posta-hurbilketa
12. CAT_DIR_COD_TH	Erakunde publikoaren egoitza dagoen lurraldea
13. CAT_DIR_COD_MUNI	Erakunde publikoaren egoitza dagoen udalerrria
17. CAT_DIR_CP	Erakunde publikoaren egoitzaren posta kodea
18. CAT_DIR_TELEFONO	Erakunde publikoaren egoitzaren telefono zenbakia
19. CAT_DIR_FAX	Erakunde publikoaren egoitzaren fax zenbakia
20. CAT_DIR_EMAIL	Erakunde publikoaren egoitzaren posta elektronikoa

5.1.2 Sailkapen-aldagaiak

4. CAT_DIR_COD_ENT_TIPORG2	Erakunde publiko-mota
5. CAT_DIR_COD_ENT_TIPORG1	Erakunde publikoa zein entitate publikokoa den
6. CAT_DIR_COD_ENT_TH	Erakunde publikoa zein lurralderen menpe dagoen
8. CAT_WEBPRIN	Web-mota (nagusia/ostalaria/elkartua)
21. CAT_TIPOWEB	Entitate-Web harreman-mota
22. CAT_CUENTWEB	Erakunde publikoaren araberako Web kopurua
23. CAT_CUENESPT	Erakunde publikoaren araberako zerbitzu eta prozedura kopuru osoa
24. CAT_CUENWSPT	Webaren araberako zerbitzu eta prozedura kopuru osoa
25. CAT_TIPOSERV	Webak eskaintzen dituen zerbitzuen mota nagusia

5.1.3 Gaurkotze-aldagaiak

11. CAT_TIPO_MOV	Mugimendu-mota
12. CAT_SUCESO_DEMO	Mugimendua sortzen duen gertaera
13. CAT_AREF	Informazioaren erreferentzia urtea (Gako nagusia)

5.1.4 Etiketa-describapena

CAT_DIR_COD_ENT_TIPORG2 Erakunde publiko-mota

A	Udala
C	Partzuergoa
D	Foru Aldundia
E	Udalez Azpiko Erakundea
F	Fundazioa
H	Eusko Jaurlaritza
L	Erakunde Autonomoa
M	Mankomunitatea
P	Baltzu Publikoa
R	Kuadrilla
W	Unibertsitate Publikoa

CAT_DIR_COD_ENT_TIPORG1 Erakunde publikoa zein entitate publikokoa den

A	Udala
C	Partzuergoa
D	Foru Alundia
F	Fundazioa
H	Eusko Jaurlaritza
M	Mankomunitatea
O	Partaidetutako beste baltzu publiko
R	Kuadrilla
W	Unibertsitate Publikoa

CAT_WEBPRIN Web-mota

1	Web Nagusia
2	Web Ostatua
3	Web Elkartua

CAT_TIPO_MOV Mugimendu-mota

A	Alta
B	Baja
M	Aldaketa
P	Jarraitzen
Z	Ez da egokia

CAT_SUCESO_DEMO Mugimendua sortzen duen gertaera

01	Sorkuntza
02	Desagertzea
03	Bat-egitea
04	Absortzioa
05	Desintegrazioa
06	Zatiketa
07	Berregituraketa
08	Bikoiztua

- 09 Okerra
99 Ez da egokia

CAT_TIPOWEB Entitate-Web harreman-mota

- 1 Bere Web bakarria du (Nagusia)
2 Web Nagusia eta beste bat/batzuk Elkartua/ak ditu
3 Web Ostalari bat erabiltzen du
4 Herri erakunde batzuek Web bera erabiltzen dute
7 Web Nagusia eta Ostalaria/ak ditu
8 Web Nagusia, Elkartua/ak eta Ostalaria/ak ditu

5.1.5 Siglen esanahia ikastetxeen izenetan

AE	<i>Arte Eskola</i>
AGDE	<i>Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskola</i>
APDIB	<i>Arte Plastiko eta Diseinuko Ikastetxe Baimendua</i>
BHI	<i>Bigarren Hezkuntzako Institutua</i>
BHIP	<i>Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua</i>
DKP	<i>Dantza Kontserbatorio Profesionala</i>
GLHBI	<i>Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutua</i>
GMIB	<i>Goi Mailako Musika Ikastetxe Baimendua</i>
HBI	<i>Hezkuntza Bereziko Ikastetxea</i>
HBIP	<i>Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Pribatua</i>
HE	<i>Haur Hezkuntzako Eskola</i>
HEO	<i>Hizkuntza Eskola Ofiziala</i>
HEPR	<i>Haur Eskola Pribatua</i>
HHI	<i>Helduen Hezkuntzako Ikastetxea</i>
HHIP	<i>Helduen Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua</i>
HIP	<i>Haur Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua</i>
HLBHIP	<i>Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua</i>
HLHI	<i>Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea</i>
HLHIP	<i>Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua</i>
HLPIB	<i>Hasierako Lanbide Prestakuntzako Ikastetxe Baimendua</i>
HLPIP	<i>Hasierako Lanbide Prestakuntzako Ikastetxe Publikoa</i>
IPI	<i>Ikastetxe Publiko Integrala</i>
KIIB	<i>Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Baimendua</i>
KIIP	<i>Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoa</i>
LBHIP	<i>Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua</i>
LHIP	<i>Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua</i>
MEPR	<i>Musika-Eskola Pribatua</i>
MEPU	<i>Musika-Eskola Publikoa</i>
MIBP	<i>Musika Ikastetxe Baimendu Profesionala</i>
MKP	<i>Musika Kontserbatorio Profesionala</i>
OMIB	<i>Oinarrizko Mailako Musika Ikastetxe Baimendua</i>

PHE	<i>Partzuergoko Haur Eskola</i>
UBI	<i>Urrutiko Batxilergoko Institutua</i>
UHE	<i>Udal Haur Eskola</i>
UOHI	<i>Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxea</i>

6. HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILEKO ESTADISTIKA OFIZIALEKO ATALEAN ESKURAGARRI DAGOEN BESTELAKO ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO AGIRI METODOLOGIKOAK ETA DATUAK

- 6.1** Erabilitako Administrazio Elektronikoaren terminoen **Glosarioa**.
- 6.2** Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika –ESPE2010- eta Sofistikazio Elektronikoaren Indizea –SOFEI2013- delakoaren **Fitxa eta Txosten Metodologikoak**.
- 6.3** Excel Fitxategiak: **ZPEE2010-Taulak Estatistikak_e.xls** -Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika –ESPE2010- eta Sofistikazio Elektronikoaren Indizea –SOFEI2013- **SOFEI2013-Taula_Estatistikak_e.xls** delakoaren datu-taula nagusienekin.
- 6.4** Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika –ZPEE2010- eta Sofistikazio Elektronikoaren Indizea –SOFEI2013- delakoaren bilketa egiteko **galdetegiak**.
- 6.5** Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika –ZPEE2010- eta Sofistikazio Elektronikoaren Indizea –SOFEI2013- delakoaren **prentsa-oharrak**.

Sarbidea:

[Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Estatistika Ofiziala](#)